



Groseko jai batzordeko kideak, aurtengo jaitako kartelarekin. **MADDI VIANA**

Zipotz jaiak: «Belaunaldi guztiak elkartzea nahi dugu»

Aixa Goikoetxeak eta Beñat Aranak, Groseko jai batzordeko kideek, argi dute aurtengo Zipotz jaien helburua: adin guztietako jendearentzako jaiak izatea. Haurretatik hasi eta jubilatuetaraino, belaunaldi denak elkartzea dute helburu.

Maddi Viana

Belaunaldi guztiak elkartzeko jardueren artean txupinazoa aipatu dute jai batzordeko kideek. Horrelako jarduerak adin guztietako auzotarrentzako daude pentsatuta. Haurren danborrada izan edo Okendoko abesbatzaren emanaldia izan, guztiak osatzen dituzte Zipotz jaiak.

Jai batzordearen apustu handiene-

tako bat gazteak erakartzeko egitaraua da, eta aurreko urteko Rally Poteoaren arrakasta ikusita, aurten ere garrantzia eman diote. Gazte Egunean ere jarduera berria gehitu dute: Marianitanda girotua. Goikoetxeak azaldu duenez, ostiraleko gazte bazkarira jendea animatua iritsi dadin. Bazkalostean auzo argazkia egingo dute baita ere, euskal selekzioaren aldeko aldarria egiteko.

Horri blusen berreskurapena gehitu behar zaio. Kuadrilla betaranoek badauzkatela, baina gazteen artean galdutako ohitura zela aitortu du Aranak. Hori aldatzeko, blusak egiteko tailerra antolatu zuen jai batzordeak, eta, pixkanaka, kuadrilla gehiago gerturatzen ari direla azaldu du bikoteak.

Zipotz jaien indargune nagusietako bat auzoaren inplikazioa da: «Taldea baino, auzoa gara»

Giroa lantzen

Aranaren eta Goikoetxearen ustez, Zipotz jaien indargune nagusietako bat auzoaren inplikazioa da: «Taldea baino, auzoa gara», nabarmendu du Aranak. Dena den, parte hartze hori sustatu eta gehiago handitu nahi du jai batzordeak. Elkarrekin gehiagok jaiak kalera ateratzea nahi dute, auzo osoan jai giroa arnastu dadin.

Katalunia plazan jartzen duten txosnan izaten dira kontzertu gehienak, eta, gainera, gualdean. Horregatik, arratsaldeetan txosnari ematen dioten erabilera indartu nahi du jai batzordeak *merchandising* postua, janaria eta mahai eta aulkiak jarritz.

Epe luzera ere badituzte helburuak, aipatutako blusak egiteko tailerrekin jarraitu nahi baitute, haien erabilera sustatzeko. Bestalde, jai batzordeak bi produktu berri aurkeztu ditu: kamiseta eta jertse berriak alde batetik eta Zipotz jaietako garagardoa bestetik. NaparBeer enpresarekin elkarlanean ekoizi duten garagardoa «edateko erraza» dela ziurtatu du Aranak. Txosnan salgai egoteaz gain, urte osoan zehar hainbat establezimendutan ere egongo da eskuragai: Kixkurra, Txofre, Marruma, Txindoki, Natxo, Kau, Groseko Indarra, Ensanxe, Mala Gissona, Bidassoa, Hopa, Ilargi eta Muno Baserria. ●



OSTEGUNA 16

16:30

Kamiseta eta aurpegi margotzea, Txofre plazan.

18:00

Kuadrillen jaitsiera, Katalunia plazatik abiatuta.

Mala Gissona jaialdia: Zerumuga taldearen kontzertua.

18:30

Txipi, Txirla eta Txixarron pailazoan *Hip hip ura* ikuskizuna, Txofre plazan.

19:00

Ereski abesbatzaren emanaldia, Okendo Kultur Etxean.

19:30

Pregoia.
Ondoren, erraldoi eta buruhandiekinek kalejira, Txofre plazatik abiatuta.

20:00

Saiheski errea, Txofre plazan.

JuntaJo taldearen kontzertua, Marruma tabernan.

Pez Esperma taldearen kontzertua, Kaiola tabernaren eskutik.

20:45

Txokolate jana, Nafarroa Beherea plazan.

21:00

Andoni Oilokiegiren kontzertua, Txofre plazan.

Kontzertuak, Katalunia plazan: Bombociatl, Herrimin, King Konsul & Eira, Revolutionary Brothers.

OSTIRALA 17

10:30

Hamaiketakoa, Garagune-Usandizagaren egoitzan.

Euskaraz hitz egiten badakizu?

Euskara ikastaroak

hitzez
euskaltegia

Ondo pasa
Zipotz
jaietan!

12:00

Erraldoi eta buruhandiekin kalejira, Nafarroa Beherea plazatik abiatuta.

13:00

Marianitada girotua, txosnan.

14:00

Gazte bazkaria.

Ondoren, bingo musikatua, Katalunia plazan.

16:00

Rally Poteoa, Katalunia plazatik abiatuta.

16:30

Pala eta pilota finalak, Sagueseko frontoian.

17:30

Haur danborrada, Txofre plazatik abiatuta.

18:00

Grafiti erakustaldia eta Break Dance ikuskitzuna eta tailerra, Txofre plazan.

19:00

Eresmin abesbatzaren kontzertua, Okendo Kultur Etxean.

Gotx elektrotzaranga auzoko kaleetan zehar, Katalunia plazatik abiatuta.

19:30

Haurren afaria, Txofre plazan.

Radio Rebelde Covers taldearen kontzertua, Mendi Berri tabernan.

20:00

Sardin jana, Txofre plazan. Mikeltxi DJaren kontzertua, Txofre plazan.

Flow El Sandunguero DJaren kontzertua, Txoko 110 tabernan.

21:00

Zezesuzkoa, Txofre plazan.

21:30

Pepermint Sextet-en kontzertua, Txofre plazan.

22:00

Kontzertuak Katalunian plazan: Garazi, Burutik eta Pinaka.

LARUNBATA 18

09:30

2015-2016ko haurrentzako futbito txapelketa, Manteeko frontoian.

10:00

2017-2018ko haurrentzako futbito txapelketa, Matigoxotegin.

Surf ginkana, Zurriola hondartzan.

Helduentzako Basket Kalean, Sagues kantxan.

11:00

Helduen futbol sala finala, Manteo kiroldetxean.

Gaztetxoentzako eta helduentzako xakea, Txofre plazan.

Haurrentzako jolasak, Katalunia plazan.

12:00

Toka jolasa (15-99 urte), Saguesen (lzen ematea 11:30ean txiringitoan).

Txaranga, Nafarroa Beherea plazatik abiatuta.

13:30

Ginkanako eta tokako sari banaketa, Saguesen. Groseko Indarraren eskutik.

14:00

Paella jana, Saguesen. Groseko Indarraren eskutik.

14:30

Kantu bazkaria, Katalunia plazan.

Ondoren, kantujira.

15:30

Txikientzako Basket Kalean, Sagues kantxan.

16:30

Mini Diskoa, Saguesen. Groseko Indarraren eskutik.

Mus txapelketa, Katalunia plazan.

17:00

Erraldoi eta buruhandien kalejira, Nafarroa Beherea plazatik abiatuta.

18:00

Matraka elektrotzaranga, Saguesen. Groseko Indarraren eskutik.

Errima txapelketa eta Showcases, Sagueseko frontoian, Urban 13ren eskutik.

Karate erakustaldia, Karkizano kalean, Karate-do Saito eskolaren eskutik.

18:15

Helduen danborrada, Nafarroa Beherea plazatik abiatuta.

19:00

Xoan Alonsoren Xiratori o estabel kontzertu akustikoa, Okendo Kultur Etxean.



LAIA
A B O K A T U A K

Zorionak jaiak auzotik eta auzoarentzat aurrera ateratzen zabilatzaten guztioi.

Gora
Zipotz
jaiak !



Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30

Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia

19:30

The Sally Doss' Band taldearen kontzertua,
La Kaba tabernan.

Txokolate jana, Nafarroa Beherea plazan.

20:00

Saiheski errea, Txofre plazan.

Zuaitz & 6jerseysen Djen kontzertua,
Txoko 110 tabernan.

20:30

Besalderen kontzertua, Txofre
plazan.

21:00

Kontzertuak Saguesen: Zeatikez, John
Dealer and The Coconuts eta Bad Sound
System.

21:45

Ttanttakaren kontzertua,
Txofre plazan.

22:00

Kontzertuak Katalunia plazan: Pixa, Marte
Lasarte eta DJ 3haiZra.

IGANDEA 19

10:00

Txirriindulari ginkana txikia (Donostiarra
Txirriindularitza Clubaren 75. Urteurrena),
Karkizano kalean.

10:30

Abokaria, auzoko kaleetan zehar.

**11:00**

Elkarte eta kuadrillen arteko marmitako
lehiaketa, Katalunia plazan.

Haurrentzako herri kirolak, Katalunia plazan.

12:00

Garagardo dastaketa, Katalunia plazan.

12:30

Bertso saioa, Katalunia plazan. Bertsolariak:
Miren Artetxe, Eli Pagola, Jon Martin eta
Iñaki Apalategi.

14:30

Kantu bazkaria, Katalunia plazan.

16:30

Euskal selekzioaren ofizialtasunaren aldeko
argazkia.

17:00

Kuxkxutu Txaranga-kantalaria, Katalunia
plazatik.

18:00

Yogurinha Borova: *Amona Molona*
emanaldia, Katalunia plazan.

19:15

Euskal dantza gidatuak,
Katalunia plazan.

20:00

Laket erromeria,
Katalunia plazan.

Luca Grassiren kontzertua Kaiola
tabernaren eskutik.

21:15

Zezensuzkoa, Katalunia plazan.

22:00

Lalerina Dren kontzertua Kaiola tabernaren
eskutik.

00:00

Jaien amaiera. Datorren urtera arte!



aek
euskaraz praktikoa

**Udan ere
euskaraz eroso**

UDAKO IKASTAROAK DONOSTIAKO AEKn
Groseko Irrintzi AEKn (Iztueta 3, behe) **aurrez aurreko IKASTAROAK.**

TRINKOAK:

- Uztailen 4 ordu egunero: **A1 eta A2 mailak.**
Uztailaren 2tik 30era / 195€
- Irailean **B1, B2 eta C1** azterketak prestatzeko ikastaroak:
Irailean 2,5 ordu egunero. Etxerako lanak eta tutoretzak
Irailean 1etik 30era / 195€

Diruz lagunduriko ikastaroak
Informazioa: Zure euskallegian eta donostia@aek.eus
943 32 76 11 eta **607 59 63 44** telefonoetan.

BARNETEGIAK: Euskalduntzea A2-B1-B2-C1 mailak
<https://www.aek.eus/eu/barnetegiak>

Informazio gehiago

